

Cristóbal Balenciaga

Teknika, Materia eta Forma

Prentsa txostena

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

B

Cristóbal Balenciaga

Teknika, Materia eta Forma

2025.05.07

Cristóbal Balenciaga Museoak berriz zabalduko ditu ateak, bere bildumari buruzko diskurtso tematiko berri batekin.

Otsailean aldi baterako itxi ondoren, Cristóbal Balenciaga Museoak berriz zabaldu ditu bere ateak, bere bildumako erakusketa berriarekin eta zenbait gune berrituekin. Erakusketa museoaren bildumetan oinarritzen da eta diskurtso berri bat aurkezten du, zeinak sortzaileari eta haren lanari buruz gai desberdinak jorratzen dituzten museoko bost areto nagusiak zeharkatzen baititu.

Aurtengo programazioaren xedea Cristóbal Balenciagaren balioa azpimarratzea eta museoaren publikoarengan modaren ondarezko alderdiarekiko kontzientzia eta sentsibiltatea sortzea da. Horretarako, museoak zaintzen duen ondarea, sorkuntza berria eta gaur egungo gizartearen testuingurua elkarlotzen dituzten diskurtsoak prestatu dira, jasangarritasuna, inklusioa eta dibertsitatea kontzeptu nagusi izanik.

CBM 2011.17
Gaueko soinekoa, boli-kolorezko ziberlinaz egina, 1967



Erakusketa


Cristóbal. Balenciaga. Teknika, Materia eta Forma izenburupean, oraingo honetan, ibilbide berri bat proposatzen da erakusketa ikusteko; hain zuzen ere, bisita areto biografikoan hasten da, Cristóbal Balenciagaren enpresa-, bizitza- eta sormen-ibilbidea agerian jartzeko eta bisitariak Getariako maisuaren testuinguru historiko eta geografikoan kokatzeko.

Une horretatik hasita, elkarren segidako lau aretoek diskurtso tematiko berri bat dute, eta XX. mendeko goi-mailako joskintzaren agertokia aztertzen dute, baita teknika, materia eta forma ere, Balenciagaren lana definitzen duten kontzeptuak baitira. Horiek horrela, erakusketak joskinaren lanaren eta haren eragin eta ondarearen inguruko hurbilketa sakon eta didaktikoago bat planteatzen du.

Museoko bildumen zuzendari Igor Uria da erakusketaren komisario, eta 90 pieza baino gehiago aurkezten ditu, baita piezokin lotutako zenbait baliabide ere, zeinari esker piezak 3Dan esploratu eta ehunak oso bereizmen handian bistaratzea baitaitezke. Gainera, ikus-entzunezko beste baliabide batzuk aurkituko ditugu, bideo-mapping gisa, Balenciaga silueten koherentzia sortzailearen eta bilakaeraren ideia bat egiteko aukera emango digutenak. Halaber, Ikerne Jiménez eszenografoaren eta Susana Blasco diseinatzaile eta collagegilearen esku-hartze artistikoak ikusi ahalko dira.

1. Aretoa

Cristóbal. Biografia



Cristóbal Balenciagaren (1895-1972) biografiaren abiapuntua eta amaiera da Getaria, haren bizitza naturala gainditzen duen denbora-lerroa, museoaren inauguraziora arte iristen dena.


Bertan, arrantza herri txiki batetik datorren gazte bat Parisko goi-mailako jostintzaren Maisu bihurtu eta ia hiru hamarkadatan eremu hori menperatzera daramaten mugarriak aurkezten dira.

Bere garaian «ikusezin», «enigmatiko» eta «gortinaren atzeko gizontzat» izendatua izan zen Balenciaga, eta bigarren plano diskretu batean mantendu zuen beti alderdi pertsonala.

Toki berean haren erretratu urriak, haren hastapenetako irudiak eta testuingurua, haren objektu pertsonalak zein lanekoak eta haren jantziteria bilduz, Balenciaga izenak duen ospearen atzean ezkutatutako Cristóbal nor izan zen erakusten duten aztarnak ikustea lortzen da.



2. Aretoa Balenciaga. Etxea




Cristóbal Balenciagak goi-mailako jostintzaren sistemako moda-sortzaile gisa jardun zuen, distirarik handiena XX. mendearen erdialdeko Parisen lortu zuen ingurune oso lehiakorrean- Diseinuen egiletza babestua, ehunen kalitate handia, neurrira egindako jantzien akasgabetasuna eta bezeroen eksklusibotasuna zituen ezaugarri nagusi ingurune hark.

Denboraldi bakoitzean, bildumaren aurkezpenak, George V.a etorbideko 10. zenbakiko aretoan, markatzen zuen Balenciaga etxearen sorkuntza-zikloaren eta merkataritza- eta ekoizpen-zikloaren arteko inflexio-puntua.


1958-1962ko bildumetako lanen hautaketa baten bidez, aretoetako giro neutro eta dotorea gogora ekarrita eta Tom Kublinek dokumentatutako desfileen proiektioarekin, bisitaria Balenciagak 30 urtez baino gehiagoz modaren erritmoa ezarri zuen denboran, tokian eta gizartean sartzea da gune honen helburua.

CBM 2000.125

Satin fuksiazko gaueko soinekoa, lore-brodatu zuriarekin, 1958



3. Aretoa Teknika



Balenciaga teknikaren arloko maisua zen. Haren prozesua moulage-arekin hasten zen, ehuna gorputzaren gainean modelatuz, forma eratortzeko. Gainera, bere eskuz mozteko, muntatzeko eta josteko gai zen, eta horrek berrikuntza ahalbidetzen zion prozesu osoaren ikuspegi integrala ematen zion.

Areto honetan hautatutako lanak gaitasun horren adibide dira —ez beti agerikoak—: gorputzaren inguruan espiralean biratzen duten ingurutzailleak, ehunari arintasuna ematen dioten zeharkako mozketekin, edo jostura bakarreko patrioiak, eraikuntza-minimalismoaren epitomea, beren sekretuak zabaltzen dituztenak.


Baina, Balenciagak sortu bazituen ere, bezero batentzat neurria egindako jantzi hauek jostunek tailerretan egiten zuten lan adituaren emaitza dira. Haienak dira museoan erakusten diren artelanak lotzen dituzten puntadak, eta, ezinbesteko laguntzaile gisa, aitortza ematen zaie areto honetan.

Museoak 2014an hasitako *Las manos que cosen* ondare immaterialari buruzko ikerketa-lerroak tailerretako langileen testigantzak eta dokumentazioa jasotzen ditu, bai eta goi-mailako jostuntzaren lanbidea egiten jakitea ere. Proiektuak, orain arte, laurehun erregistro eta testigantza baino gehiago biltzen ditu, bai eta haien bizipenei eta lan-esperientziari buruzko dokumentazioa ere, hala nola argazkiak, gutunak, lan-tresnak, objektuak eta abar. Informazioa erakusketan eta museoaren webgunean dago eskuragarri.

Donostiako tailerra



4. Aretoa Materia



Goi-mailako joskintza Europako ehungintzak eskaintzen dituen kalitate goreneko ehunen erakusleihoa da.


Oihal-hornitzaileen eta moda-sortzaileen arteko konplizitateaz ohartzea ezinbestekoa da ulertzeko Parisen ziharduten goi-joskintzako etxeek denboraldiz denboraldi beren bezeroak limurtzeko zer-nolako aberastasuna lortzen zuten kalitate goreneko testuretan, koloretan, estanpatutan, brodatutan eta abarretan.

Lanbide berean dihardutenen artean, ehunei buruz duen ezagutza sakonagatik da ezaguna Balenciaga. Ehun-tipologia desberdinen aukerak mugara eramateko zuen gaitasun horren hainbat adibide erakusteko antolatuta dago aretoa.

CBM 2003.24ac
Gauko konjuntua zetazko gazar zulo-puntudun beltz eta zurian,
Abrahamena, zetazko begizta batekin, 1965
Balenciaga. Paris



5. Aretoa Forma



Cristóbal Balenciaga bere aztarna utzi zuen modaren historian bere silueta berriekin, ideal estetiko femeninoaren ulerkera aldarazi baitzuen haien bidez.

Hasieratik, Balenciagaren lanetan Lanvin eta Vionet sortzaileen eragina nabari ikusten zen garaitik, azken bildumetako forma arkitektonikoagoetara, bilakaera pausatu eta koherente batek ezaugarritu zuen haren ibilbidea, analisisan, lerro formal berriak proposatzean eta haien esperimentazio eta egokitze progresiboan oinarritua.

Aretoko lanak Balenciagak emandako mugarri nagusietako batzuk erakusteko asmoz hautatu dira, beren aurrekarien eta ondorengo aldakuntzen sekuentzian, soinekoa gorputzarekiko gero eta abstraktuagoa izateko joera eta hirugarren elementu baten garrantzia markatuz: airea.

CBM 06.1999
Baby doll soinekoa, zetazko ikat
tafetaz egina, lore-estanzazioarekin, 1958



CBM 2006.85
Zetazko tafeta beltzez egindako gaueko berokia, 1935



2025eko programa

Martxoan bildumako erakusketa berriarekin ateak berriz zabaldu ondoren, udaberrian seigarren areto bat inauguratuko da. Horretan, museoan jasotako Cristobal Balenciagaren obra-bilduma aurkeztuko da, beste sortzaile eta bilduma batzuetako lanekin batera, bisitariaren esperientzia eta Balenciagaren obrari buruz duen ezagutza aberaste aldera. Oraingo honetan, Balenciagaren Parisko Artxiboetako obrak bilduko ditu museoak.

Ikerketa, sorkuntza eta teknifikazioa

Urrian, Cristobal Balenciagari buruzko Nazioarteko II. Biltzarra egingo da Getarian. Horren harira, moda historikoaren eta garaikidearen akademiko, ikertzaile eta aditu ospetsuenetako batzuk eta modaren hezkuntzako eta komunikazioko hainbat profesional bilduko dira herrian. Aurkeztutako 60 hautagaitik gorako zerrendatik, 24 proposamen aurkeztuko dira.

Jarraipena emango zaio ikerketa, sorkuntza eta teknifikazioa lantzeko programari. Horretan, aipagarriak dira *Transmissions* hezkuntza-programa, munduko moda-eskola ospetsuenen arteko hamasei zentrokekin lankidetzan prestatua; eta goi-mailako jostuntzako teknikan espezializatutako prestakuntza-proposamenak, zeinak gai baitira Balenciagaren ondare teknikoa helarazteko. Udazkenean, lanen aukeraketa bat aurkeztuko da Aldamar Jauregiko erakusketa-aretoetan.


Jardueren programazioa osatze aldera, Museoaren komunitatearekin konektatzeko eta Cristóbal Balenciagaren konfiantzazko, sormenezko, dibertsitateko eta jasangarritasuneko balioak partekatzeko kultura-, aisialdi- eta ongizate-programa bat prestatu da. Halaber, modaren inguruko zenbait proposamen kultural egin dira —eskola-programa, familiako jardueren programa, moda jasangarriaren eta kontsumo arduratsuen inguruko kontzientziazioa, eta publiko guztientzako irisgarriak diren jardueren aldeko apustua— eta urtean zehar gauzatuko dira.

2024ko datuak

2024an, museoak 90.000 bisitari eta erabiltzaile baino gehiago izan ditu Getarian; hau da, aurreko urtean baino % 35 gehiago; hala, argi geratu da Museora egindako bisiten hazkunde positiboa egonkortu egin dela eta pandemia aurreko mailak gainditu direla.

Bisitarien % 48 Estatutik bertatik datoz. Horietatik % 13,5 Euskaditik, eta % 34,5 kanpotik; zehazki, Madrilek eta Kataluniak ekartzen dituzte bisitari gehien.

Nazioarteko publikoaren presentzia ere argi eta garbi sendotu da, eta guztizkoaren % 52 da. Atzerriko bisitarien artean, Frantziatik datozenak nabarmentzen dira (guztizkoaren % 17); beste batzuk Estatu Batuetatik, Alemaniatik, Britainia Handitik, Italiatik eta Herbehereetatik etortzen dira.



Cristóbal Balenciaga Museoa

Cristóbal Balenciaga Museoa 2011. urteko ekainaren 7an zabaldu zituen ateak. Jostunaren jaioterrian dago kokatua, Cristóbal Balenciagaren lehenengo prestakuntza-urteen eta heldutasun profesionalaren oroimenez eta modaren munduari egindako ekarpenak ulertzeko helburuarekin.

Balenciagaren bizitza eta lana, modaren eta diseinuaren historian izan zuen garrantzia eta bere ondarearen garaikidetasuna ezagutzera emateko helburuarekin, bilduma aparta du museoak. Oso bilduma zabala da —5.100 pieza baino gehiago inguru ditu, baina etengabe ari da handitzen, gordailuei eta dohaintzei esker—, eta hedadura formal eta kronologiko handia du —jostunaren modelo zaharrenak daude, esaterako—; bi ezaugarri horiei esker, gaur egun dagoen bildumarik osatu, koherente eta interesgarriena da.

Bildumaren beste balio ezohiko bat piezen jatorria da; izan ere, Balenciagaren nazioarteko bezero handiak XX. mendeko gizarteko pertsonaia aipagarriak izan ziren: Mona Von Bismarck, Rachel L. Mellon, Patricia López Wilshaw, Barbara Hutton, Lilian Baels, Grace Kelly edota Madame Bricard, besteak beste, Artxiboetan dauden modeloak jantzi zituzten.



Informazioa

Zuriñe Abasolo Izarra
Komunikazio arduraduna

zurine.abasolo@fbalenciaga.com

T +34 943 004 777

M +34 647 410 775

Aldamar Parkea 6
20808 Getaria
T +34 943 008 840
info@crislobalbalenciagamuseoa.com
www.crislobalbalenciagamuseoa.com

B

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

